

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 18ko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2021eko berariazko deialdia onesten baita**

BDNS (Identif.): 555035

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/555035>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren web-orrian <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

#### Lehen. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridikoak, baldintza hauek betetzen badituzte: 50 langile baino gutxiago izatea; urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euro ez gainditzea; aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan; merkataritza-jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean egitea (industrial-deetan izan ezik), bai jendearentzat irekita eta lur-arrasean kokatuta dagoen lokal batean, erakusleihoarekin eta merkataritzaren ohiko ordutegiarekin, bai azoketan nahiz merkataritza-zentro edo galeria pribatuetan; eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda egotea:

– 64: Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa tabakoa salbu, makina automatikoen bitartez).

– 65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuen salerosketa, txikizka; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurrpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

– 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

– 671, 672 eta 673: Elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

– 676: Elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

– 677.9: Jatetxei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk.

#### Bigarrena. Xedea

Gasteizko udalerriko txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitala sustatu eta babestea, enpresa horien lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

**Hirugarrena. Oinarriak**

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021. urteko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zk), eta 2021eko martxoaren 18an, berriz, 2021ean Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

**Laugarrena. Dirulaguntza jaso lezaketek ekintzak**

300,00 eurotik gorako inbertsio-proiektuak, baldin eta 2020ko uztailaren 16tik 2021eko maiatzaren 28ra bitartean egiten badira, alor hauetakoren batean:

A. Oinarrizko ekipo informatikoak eta bere periferikoak (lokal bakoitzeko, ekipo informatiko bakarra eta periferiko-mota bakoitzetik bana).

B. Enpresaren jarduera nagusiarekin zerikusia duten kudeaketa-tresnak edota softwarea.

C. Enpresaren web korporatiboa lantzea.

D. Marketin digitala.

E. Saltokiko komunikazioarekin, erosketa-prozesu interaktiboa sortzearekin eta/edo digitalizazioaren bitartez produktua pertsonalizatzearekin lotutako tresnak eta ekipoak.

**Bosgarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honek 60.000,00 euroko zuzkidura du, 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 "Denda txikientzako laguntzak" partidaren kontura. Balioespenean lortutako puntuen arabera lagunduko dira diruz proiektuak. Enpresa eta urte bakoitzeko eskabide bakarra lagunduko da diruz, eta gehieneko zenbatekoa 5.000,00 eurokoa izango da.

**Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2021eko maiatzaren 10etik 28ra.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 22an

*Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI**